




# HARRERA GIDA



ZARAUZKO *U*DALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro





# ONGI ETORRI



Historiako hainbat unetan izandako migrazio-mugimenduen ondorioa da gure herria. Migrazio horiek osatu eta aberastu egin dute gure herria, eta hala egiten jarraitzen dute, baina ez bakarrik gure bizi-kalitatearen oinarri den garapena bultzatzen dutelako, baizik eta horri esker gure herria zentzu guztietan aberatsagoa delako.

Argi daukagu jatorri ezberdineko bizilagunen etorrera landu eta kudeatu beharra dagoela, eta lan hori bi norabideko prozesu gisa ulertzen dugu; horrela, inguru berrira egokitzeko ahalegina ez da izango etorri berriena bakarrik, bertakoek ere urratsak eman behar ditugu gero eta anitzagoa den gizarte batera egokitzeko.


Nolanahi ere, etorri berriak egingo du egoera berrira egokitzeko ahalegin handiena. Hori horrela da. Izan ere, euskaldunak ere herri migratzailea izan garenez, ondo dakigu ez dela erraza zure sorlekua utzi eta beste herrialde batean bizimodua hastea, are gehiago, bizitza zailtzen duten faktoreak sartzen badira tartean.

Horregatik guztiagatik, Udalak hainbat programa eta egitasmo jarri ditu martxan etorrera hori ahal den neurrian samurtzeko. Horien berri ematen dugu harrera gida honetan. Horrez gain, udal baliabideei buruzko informazio baliagarria ere jaso dugu, eskura edukitzea komeni diren hainbat telefono zenbakirekin batera.

Zuentzat interesgarria izango delakoan, jaso ezazue nire ongietorririk zintzoena.

Ongi etorri Zarautzera!

Xabier Txurruka  
Alkatea





# AURKIBIDEA



01. HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ) \_06



02. ERROLDA \_ 07



03. EUSKARA IKASI \_ 08



04. OSASUN LAGUNTZA \_ 09



05. IRAKASKUNTZA – PRESTAKUNTZA \_ 10-11



06. ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA \_ 12



07. ENPLEGUA \_ 13



08. ETXEBIZITZA \_ 14



09. HONDAKINAK \_ 15



10. GIZARTE ZERBITZUAK \_ 16



11. INDARKERIA MATXISTA \_ 17



12. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA \_ 18



13. EGOERA DISKRIMINATZAILEAK SALATZEKO BALIABIDEAK \_ 19



14. FAMILIA MIGRATZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA \_ 20-21



15. AHOLKULARITZA JURIDIKOA (ATZERRITARTASUN ARLOAREKIN LOTUTA) \_ 22



16. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUN KULTURALA \_ 23



17. JAIK ETA EGUN BEREZIAK \_ 24



18. GIDATZEKO BAIMENA \_ 25



19. BORONDATEZKO ITZULERA HUMANITARIOA \_ 26-27



20. ATZERRITARTASUNENKO TRAMITEEN DIREKTORIOA \_ 28-29



21. UDAL EKIPAMENDUAK \_ 30-31





# 01

# HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ)

1- Udalari edozein motatako eskaera egiteko bidea duzu HAZ zerbitzua: erroldatzea, ekimenak, erreklamazioak, dirulaguntzen eskaerak, lizentzia-eskaerak, etab.

2- HAZeko sarrera-erregistroan erregistratu daitezke, bai Udalari zuzendutako agiriak, eta baita beste edozein administrazio publikori zuzendutakoak ere (hala nola, Eusko Jaurlaritzari edo Gipuzkoako Foru Aldundiari).

Horien artean honakoak:

## - Etxebizitzaren egokitasun-txostena



[https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_eskaera/etxebizitzaren-egokitasun-txostena/web01-ejeduki/eu/](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_eskaera/etxebizitzaren-egokitasun-txostena/web01-ejeduki/eu/)

## - Gizarte-txostena



<https://www.euskadi.eus/gizarteratze-txostena/web01-tramite/eu/>



Kale Nagusia 29, bajo



010 (Zarautztik) eta 943 005



100 [haz@zarautz.eus](mailto:haz@zarautz.eus)

## TELEMATIKOKI:



<https://www.zarautz.eus/eu/tramiteak>

## Ordutegia:

-Astelehenetik ostiralera  
(ostegunak izan ezik): 07:30 -  
15:00

-Ostegunetan: 08:30 - 14:30 / 16:30 - 19:00

\*Udaldi eta egun berezietan: 07:30 - 15:00

# 02\_

# ERROLDA



Herritar guztiak azaltzen diren erregistroari Udala Errolda deitzen zaio, eta erroldan izena emateari erroldatzea. Espainiako nazionalitatea dutenak ez ezik, atzerritarrak ere errolda daitezke, pertsona horien egoera administratiboa edo adina kontuan hartu gabe.

**Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek bizileku-baimen iraunkorrik ez badute, horien erroldatzeak 2 urteko balioa izango du, eta interesdunak berritu egin beharko du epe hori bukatu ondoren. Hala egin ezean erroldatzea iraungi egingo da.**

Garrantzitsua da erroldako erregistroa eguneratuta edukitzea, eta helbidez aldatzen den bakoitzean horren berri ematea.

## ZARAUZKO UDALA – HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA

 Kale Nagusia 29

 010 (Zarautztik) 943 005 100

 eta \_\_\_\_\_

### Ordutegia:

-Astelehenetik ostiralera (ostegunak izan ezik): 07:30 - 15:00

-Ostegunetan: 08:30 - 14:30 / 16:30 - 19:00

\*Udaldi eta egun berezietan: 07:30 - 15:00

# 03

## EUSKARA IKASI



Euskara da Zarauzko berezko hizkuntza, eta, gaztelaniarekin batera, herriko hizkuntza ofiziala. Nolanahi ere, hizkuntza gutxitua den neurrian gure gizartean ahalegin berezia egiten ari gara euskararen erabilera bultzatu eta zabaltzeko eta, zu ere, gurekin bat eginda, zeregin horretan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu, euskara ikastera animatuz.

Zarautzen euskaraz bizi gara nagusiki, eta herrian integratzeko eta zure bizi baldintzak hobetzeko oso garrantzitsua izango da euskara, besteak beste, aukera emango dizulako edozein elkarrizketetan parte hartzeko, herriko jardueretan integratzeko eta lan aukera zabalagoa izateko.

Gainera, zure seme-alaben eskola-hizkuntza ere bada euskara. Zarautzen ikastetxe guztiek euskaraz irakasten dute 16 urtera arte, eta gaztelania irakasgai gisa lantzen dute. Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan, beraz, ikasleek bi hizkuntza ofizialak jakingo dituzte, eta oso garrantzitsua da eskolako hizkuntza

erosotasunez hitz egin dezaten, eskolatik kanpo ere euskaraz hitz egiten den eremuak eskaintzea zure seme-alabei (kirola, ludoteka, Gaztelekua...)

**Euskara ikasteko lekuak:**

**UDAL EUSKALTEGIA**


 Iturribide 28

 Tel.: 943 131 153

 [euskaltegia@zarautz.eus](mailto:euskaltegia@zarautz.eus)

-

**AEK EUSKALTEGIA**

 Zuberoa kalea 16-18

 Tel.: 943 130 175

 [zarautz@aek.eus](mailto:zarautz@aek.eus)

-

**CEPA UROLAKOSTA HHI**

 Pagoeta kalea 2

 Tel.: 943 130 013

 [012760aa@hezkuntza.net](mailto:012760aa@hezkuntza.net)

# 04

# OSASUN LAGUNTZA



Sistema publikoan doakoa den ohiko osasun-laguntza lehen mailako arretako medikuak ematen du lehendabizi. Horrek gaixoa tratatzen du eta, beharrezkoa izanez gero, mediku espezialista batengana bidaltzen du.

Lehen mailako arretako medikua edukitzeko beharrezkoa da Osasun Txartel Indibiduala (OTI) edukitzea, edota osasun-laguntzarako onarpen-eskaria onartuta izatea. Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-laguntza Osakidetzaren bidez ematen da.

Osakidetzak osasun-zentro publikoen sarea du.

## Zarauzko Anbulatorioa

 Salbide kalea 10

 Tel.: 943 007 999

Osasun-sare horrez gain, orokorrean doakoak ez diren zentro pribatuak daude.

Larrialdiko osasun-laguntza (24 ordu)

Estatuko zein atzerriko pertsona orok du larrialdiko mediku-laguntza jasotzeko eskubidea, baina osasun-laguntza osoa jasotzeko eskubidea izateko, beharrezkoa da Osasun Txartel Indibiduala edukitzea, edota osasun-laguntzarako onarpen-eskaria onartuta izatea.

Bi gauza horietako bat ere tramitatu gabe izanagatik jaso daiteke osasun-laguntza Osakidetzako zentroetan. Horrelakoetan, arreta doakoa izan dadin, osasun-arazoa konpondu ondoren, pertsona hori osasun-zentro batera bidaliko da, dagokion eskaera aurkez dezan.

## ZARAUZKO ANBULATORIOA

 Salbide kalea 10

 Tel.: 943 007 999

Informazio gehiago: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/dokumentazioa/2021/etorkinentzak-o-sarbideta-euskadiko-osasun-sisteman/>


# 05


# IRAKASKUNTZA - PRESTAKUNTZA

## • 18 urtetik beherakoak

Zarautzen, ikastetxe publikoak eta itunpekoak daude. Plaza libreak badaude, horietako edozein aukeratu ahal duzu adingabeak matrikulatzeko. Eskoletan ez dago sexuaren araberako banaketarik. Hezkuntzako hizkuntza nagusia euskara da. Ikasturtean zehar, aukeratutako zentrora bertara joan zaitezke edo, bestela, zuzenean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzara.

### EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA ORDEZKARITZA

 Andia kalea 13 (20004 Donostia)

 Tel.: 943 022 800

Ikastetxeek adinaren arabera dagokien mailan sartzten dituzte ikasleak, maila akademikoaren eta hezkuntza-beharren araberako egokitzapen txiki batzuekin.

## • HERRIKO IKASTETXEAK:

### 0-2 URTE:

#### HAURRESKOLA

 Indamendi 1

 Tel.: 943 835 919

 [zarautz.zarautz@haurreskolak.eus](mailto:zarautz.zarautz@haurreskolak.eus)

### 3-16 URTE:


#### PUBLIKOAK

 Orokieta Herri Eskola (HH-LH)

 Araba kalea 56

 943 899 130

 [012288aa@hezkuntza.net](mailto:012288aa@hezkuntza.net)

 Lizardi Institutua (DBH- Batxilergoa)

 Gurmendi kalea 11

 Tel.: 943 834 024

 [012292aa@hezkuntza.net](mailto:012292aa@hezkuntza.net)

## ITUNPEKOAK



Salbatore Mitxelena  
Ikastola (HH-LH-DBH)



Maria Etxetxiki kalea 14



Tel.: 943 831 752



[zarautz@ikastola.net](mailto:zarautz@ikastola.net)



La Salle – San José (HH-LH-DBH)



La Salle kalea 2



Tel.: 943 130 060



[lasallezarautz@lasalle.es](mailto:lasallezarautz@lasalle.es)



Antoniano Ikastetxea (HH-LH-DBH)



Gipuzkoa kalea 3



Tel.: 943 830 286



[zuzen@antoniano.com](mailto:zuzen@antoniano.com)



Oteitza Lizeo Politeknikoa  
(Ikasketak Batxilergoa – LHZ)



Gipuzkoa kalea 5



Tel.: 943 111 000



[idazkaria@oteitzalp.org](mailto:idazkaria@oteitzalp.org)



IES Monte Albertia  
BHI



San Ignacio

kalea 25



Tel.: 943

134 223



[012291aa@hezkuntza.net](mailto:012291aa@hezkuntza.net)

## • 18 urtetik gorakoak

### CEPA

Urola Kosta HHI zentro publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa, doakoa eta kalitatezkoa. Hezkuntza-eskaintza: Oinarrizko mailatik Bigarren Hezkuntzako Graduatu lortu arteko prestakuntza. Irakaskuntza ez arautuan: oinarrizko euskara, gaztelania, ingelesa eta gaitasun digitala.



Pagoeta kalea 6

(Zarautz)



Tel.: 943 130

013



[012760aa@hezkuntza.net](mailto:012760aa@hezkuntza.net)

### IKASUROLAKOSTA BITARTEKARITZA ZERBITZUA (IKASLAN)

Bitartekaritza zerbitzuak, guztiz publiko eta doakoa izaki, biritza osoan zehar etengabeko ikaskuntza sustatzea du helburu. Bitartekaritza zerbitzutik prestakuntza-mota guztien inguruko informazioa eskaintzen da:

-Prestakuntza Formala/Egiaztagarria: hezkuntza-titulu bat lortzeko egiten diren ikasketak (DBH, Lanbide Heziketa, Unibertsitateko ikasketak, arte-ikasketak, Hizkuntza Eskola Ofiziala edo Lanbide Egiaztagiri bat).

-Prestakuntza Ez-Formala edo Ez-Egiaztagarria: lan-munduan sartzeko edo lanpostura hobeto egokitzekeo baliagarriak diren ikasketak, (Egiaztagirien Katalogoan ez daudenak).

-Etengabeko ikaskuntza: era askotako prestakuntza, norbere ongizatea lortzeko egiten dena (kirola, eskulanak, terapiak, informazio-jarduerak. )



Astelehenetik  
ostegunera, 8:30etik  
16:30era

Ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara



Gazte Informazio  
Bulegoa Zigorria kalea  
34



Tel.: 645 284 300



[ikasrolakosta@ikaslangipuzkoa.eus](mailto:ikasrolakosta@ikaslangipuzkoa.eus)

# 06

# ATZERRIKO TITULUEN HOMOLOGAZIOA

Atzerritarren kasuan, jatorrizko herrialdeekin eginda dauden akordioen arabera egiaztatzen eta baliozkotzen dira aurrez egindako ikasketak

## GOI-MAILAKO IKASKETAK


Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetarako Ministerioa.

Tramitazioa Internet bidez egiten da honako esteka honetan:

<https://universidades.sede.gob.es/procedimientos/portada/ida/3513/idp/1029>

## BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK

**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila**

 Andia kalea 13, 20004 Donostia


 Tel. 012

## • Ikasketak homologatzeko zerbitzua

Emakumeen\* Etxeak doako aholkularitza eta informazioa eskaintzen du ikasketak homologatu eta baliozkotzeko (bigarren mailako ikasketak, batxilergoa, ikasketa teknikoak, goi-mailakoak edo unibertsitatea).

## EMAKUMEEN\* ETXEA ZARAUTZ

Aurretik hitzordua eskatu behar da:

 Hileko azken ostiralean, 15:30etik 19:30era, Emakumeen\* Etxean.

 Nafarroa Kalea 3, behea

 10:30-12:30 eta 15:30-

 20:30

 Tel.: 943 005 136

[emakumeen-etxea@zarautz.eus](mailto:emakumeen-etxea@zarautz.eus)

# 07

# ENPLEGUA



## • Lanbide

EEusko Jaurlaritzaren enplegu zerbitzua da. Jo bertara lehen enplegua bilatzen ari bazara, langabezian bazaude, lan-merkatura itzuli nahi baduzu, edo lanean arituta ere enpleguz aldatu nahi baduzu.

Zer da Orientazio Zerbitzua?


Pertsonen enplegarritasuna hobetzeko Lanbidek eskaintzen duen zerbitzua da.

Nola funtzionatzen du?

Lana bilatzen laguntzeko hainbat tresna eskaintzen zaizkizu, zure helburu profesionala definituz eta lana aurkitzeko aukerak hobetzeko behar duzun informazioa eskainiz.

Erreferentziako profesional bat esleituko dizugu: enplegu duin bat lortzeko aukerak bilatzen edo hobetzen lagundu eta zure hautagaitzari balioa ematen lagunduko dizu.

 Bizkaia kalea 61

 Tel.:Tel.: 945 160 600  
eta 630 305 452

 [zarautz@lanbide.eus](mailto:zarautz@lanbide.eus)

-Enplegurako Orientazio Zerbitzua (Lanbideko zentro laguntzailea).

## • Urola kostako Udal Elkarte

Enplegua:

- Lan-poltsa zerbitzua (orokorra).
- Enplegurako prestakuntza-programak.

#### Ekintzailletza:

- Autoenplegurako orientazio eta informazioa
- Enpresa sortzeko aholkularitza, laguntza eta prestakuntza
- Enpresa sortu berrientzako laguntza

Astelehenetik ostiralera: 8:00-15:00

Urdaneta bidea 6

Tel.: 943 890 808

[harrera@urolakosta.eus](mailto:harrera@urolakosta.eus)

#### Lan-eskubideak:

Bizileku-baimenik eta lan-baimenik gabeko langile atzerritarrak ez daude egoera erregularrean, baina lan-eskubideak dituzte. Ohiz kanpokotzat jotzen den edozein gorabehera, hala nola gehiegizko ordutegiak, soldata-diskriminazioak, zenbatekoen erreklamazioa, istripu-arriskua edo bidegabeko kaleratzeak, sindikatuei edo Lan Ikuskaritzari jakinaraz dakizkieke.

#### LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZA

Urdaneta 7, 1.a (20006 Donostia-San Sebastián)

Tel.: 943 023 550

[itpv-gipuzkoa@euskadi.eus](mailto:itpv-gipuzkoa@euskadi.eus)



# 08

## ETXEBIZITZA



Herritar gehienek hainbat bide erabiltzen dituzte etxebizitza bilatzeko:

**Pribatua:** prentsako iragarkiak, web orrietakoak, saltokietakoak eta leku publikoetan jarritakoak. Beste batzuek higiezin agentzietara jotzen dute. Enpresa horiek pribatuak dira, eta hortaz, dirua kobratzen dute egiten duten kudeaketa-lanengatik.

**Publikoa:** horretaz gain, badira baliabide edo zerbitzu publikoak ere etxebizitza bat eskuratzen laguntzeko (alokairuan zein erosketan). Herritarrek izena eman dezakete honako baldintza hauek betetzen badituzte:

**1- Adina:** adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea.

**2- Errolda:** etxebizitzaren etorkizuneko titularretako batek Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean egon behar du erroldatuta.

**3- Diru-sarrerak:**

-Alokairua: 0€ eta 45.022,57€ bitartean.

-Erosketa: 9.000€ eta 57.721,24€ bitartean.

**4- Identifikazioa:**

-AIZ daukaten atzerritarren kasuan,

bizikidetza-unitateko 14 urtetik gorako kideen egoiliar-txartela, iraupen luzekoa. Europar Erkidegoko atzerritarren kasuan, Atzerritarren Erregistro Zentralean izena ematearen egiaztagiria, atzerritarren identitate zenbakia (AIZ) erakusten duena.

-AIZ ez daukaten atzerritarren kasuan, pasaportearen fotokopia.

### ZARAUZKO UDALA - ETXEBIZITZA BULEGOA (ZARAUTZ-LUR)

Salegi kalea 14, 20800 Zarautz

Tel.: 943 005 129

[etxebizitza@zarautz.eus](mailto:etxebizitza@zarautz.eus)

### EUSKO JAURLARITZA – ETXEBIDE - ALOKABIDE

Andia kalea 13, 20004 Donostia

Tel. 012

Tel. 902 540 540 (Alokabide)

[etxebizitza@zarautz.eus](mailto:etxebizitza@zarautz.eus)

[www.etxebide.info](http://www.etxebide.info)



# 09

## HONDAKINAK



Gure herrian ingurumeneko arazo nagusietako bat HONDAKINAK dira.

Zabor gehiegi sortzen dugu eta hori arazo bat da, batetik, oinarrizko materia pila alferrik galtzen delako eta, bestetik, zabor horren zati handi bat erraustegira eta zabortegetara eramaten delako, horrelako instalazioek sortzen dituzten arazoekin, bereziki airearen eta lurrares kutsadura.

Horregatik, oso garrantzitsua da ahal dugun gehien birziklatzea, berriro oinarrizko materialak errekupearatzeko eta zabortegei eta erraustegiak murrizteko.

Birziklapenak etxean hasi behar du, hondakinak gaika banatu eta bakoitza bere edukiontzian botatzeko.

Zeregin txiki horrekin laguntza HANDIA emango diozu ingurumenari.

### Zaborratarako txartela eskatzeko:

#### UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA


 **Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00**

 Urdaneta bidea 6

 Tel.: 943 890 808

 [hondakinak@urolakosta.eus](mailto:hondakinak@urolakosta.eus)

# 10



# GIZARTE ZERBITZUAK



## ZARAUZKO UDALA - GIZARTE ZERBITZUAK

Zarauzko Gizarte Zerbitzuen Departamentua herritarren eta elkarte guztien eskura dago. Bere helburua da herritarren eta herriaren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea.

Bi funtzio nagusi ditugu:

- Eskubideei eta baliabideei buruz informazioa ematea, balorazioa egitea eta orientatzea; eta egoerari aurre egiteko prestazio eta zerbitzuak abian jartzea erreferentziako gizarte langilearekin.
- Komunitate sarea, parte-hartzea eta inklusioa sustatzea eta indartzea. Horretarako, zarauztarrentzat zerbitzu eta ekintza komunitarioak garatzen ditugu komunitateko hainbat erakunde eta elkarten partaidetzarekin. Gure arreta ereduaren oinarriak:
  - Herritarrentzat hurbilekoa izatea
  - Arreta zuzena, pertsonalizatua eta konfidentziala bermatzea.
  - Herritarraren eta herriaren parte-hartzea bilatzea.
  - Ekintza komunitarioa, Prebentzioa eta Inklusioa ardatz izatea

- Elkarlanean aritzea beste profesionalekin, administrazioekin, elkarteekin eta zerbitzuekin.

 **Telefonoz:**

astelehenetik ostiralera, 8:30etik  
14:30era

**Aurrez aurre:**

astelehen, astearte eta ostegunetan 08:30etik  
13:30era /Asteazken  
eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara

Zigordia kalea,33

Tel.: 943 005 111 - 943 005 127


[ongizatea@zarautz.eus](mailto:ongizatea@zarautz.eus)

**CÁRITAS**

Karitatezko laguntza soziala ematen duen kristau erakundea da.

Pertsoneri harrera egiten die, oinarrizko premietan arreta emanez eta gizarteratze-prozesuan lagunduz.

Horretarako, besteak beste, Baratza Solidarioa programa dute.

 Astearteetan, 10:00etatik 11:30era (ordua hartuta)

Mitxelena kalea 51

Tel.: 943 894 323



# 11

## INDARKERI A MATXISTA



Zer egin dezakezu indarkeria matxista jasaten baduzu?

Larrialdietan, deitu Eusko Jaurlaritzaren SOS Deiak telefonora (Tel.: 112), eta eskatu laguntza eta akonpainamendua.

Hautako zerbitzu batera joan edo deitu:

### UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

🕒 Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:30

📍 Zigordia kalea, 33

📞 Tel.: 943 005111/943 005127

✉️ [ongizatea@zarautz.eus](mailto:ongizatea@zarautz.eus)

### GIZARTE LARRIALDIKO FORU ZERBITZUA

📞 Tel.: 943 224 411

📞 112 SOS DEIAK

### ERTZAINZA

📍 Gipuzkoa kalea 46

📞 Tel.: 943 538 900

### UDALTZAINGOA

📍 Gipuzkoa kalea 32

📞 Tel.: 943 005 115

### ZARAUZKO ANBULATORIOA

📍 Salbide 10

📞 Tel.: 943 007 999

Zerbitzu horietan arreta jasotzeko eskubidea daukazu (eskura izango dituzu gizarte langileak, abokatuak, psikologoak) eta laguntza jasotzeko, zure egoera juridikoa edozein izanda ere (paperekin edo gabe), eta erroldatuta egonda edo egon gabe.

Oharra: gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunak badituzu, zure hizkuntzara interpretatzeko zerbitzua eska dezakezu.

### HARIBERRIA SEXU-INDARKERIARI ARRETA INTEGRALA.

📞 Tel.: 900 840 188

📞 WhatsApp: 747 444 389

🕒 365 egun/24 ordu

# 12

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA



Zarauzko Udalaren Berdintasun Departamentuak honako gai hauei buruzko informazioa, aholkularitza eta kontsulta eskaintzen ditu:

-Ikasketen homologazioa: hil bakoitzeko azken ostiralean, 14:30-19:30

- Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruzko edozein gai
- Sexu- eta genero-arrazoiengatikoko diskriminazioarekin lotutako gaiak
- Indarkeria matxista eta tratu txarrak

Emakumeen\* Etxea espazio bat da emakumeok elkarrekin egoteko, ahalduz, elkarri entzun eta laguntzeko, gure artean esperientziak eta bizipenak partekatzeko, sareak sortzeko eta berdintasunari eta feminismoari buruz hausnartzeko.

•Zerbitzuak eta aholkularitzak (doakoak eta konfidentzialak):

-Arreta eta bideraketa

-Aholkularitza juridikoa:  
ostegunetan, 15:00-20:00  
(hamabost egunetik behin)

-Aholkularitza psikologikoa:  
astearteetan, 9:00-13:00/16:00-20:00

-Zaintza arloan lan egiten duten emakumeen taldea: astearteetan

16:30-18:30


- Programazioa:
- Jabetze Eskola
- Iragarki-taula
- Ekitaldiak eta jarduerak
- Liburutegia eta ordenagailuak
- Gelen erabilera

## EMAKUMEEN\* ETXEA

Nafarroa 3-C, 20800 Zarautz Tel.:

943 005 136

[emakumeen-etxea@zarautz.eus](mailto:emakumeen-etxea@zarautz.eus)

 Astelehenetik ostegunera:  
11:00-13:30/15:00-19:00  
Ostiraletan: 11:00-13:30



# 13

# EGOERA DISKRIMINATZAILEAK SALATZEKO BALIABIDEAK



## ERABEREAN

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sarea da, jatorri desberdina duen diskriminazioaren aurka borroka egiteko (arrazza, etnia edo nazionalitatea eta sexu orientazio edo identitatea eta genero identitatea).

Zarautzen, ERABEREANek arretaz-zerbitzu espezializatua eskaintzen du, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren bidez. Laguntza eta aholkularitza ematen zaie arraza, etnia edo nazionalitate eta sexu orientazio edo identitatearen eta genero identitatearen ondoriozko diskriminazioaren biktima direnei eta era horretako diskriminazio-egoerak jasaten dituztenei.


 Zuberoa kalea 22

 Tel.: 943 245 626 / 943 244

 627

## ARARTEKO

EAEko administrazio publikoaren jardueran sortzen diren ustezko diskriminazio egoerekin lotutako kekak jasotzen ditu.

 Askatasunaren etorbidea 26-4  
(200005 Donostia-San Sebastián)

 Tel.: 943 420 888

 [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)

# 14

## FAMILIA MIGRATZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Urte askotan elkarrengandik urrun egon ondoren...

Zure seme-alabekin berriz elkartu al zara? Edo hori egiteko asmoa al duzu?

Zuk esperientziaz badakizu ez dela erraza norik bere sorterrira uztea eta inguru berri batera egokitzea.

Haurrentzat ere ez da erraza, eta are gehiago urteak eman badituzte bere amarekin edo aitarekin bizi gabe. Testuinguru berrira egokitzeako orduan, nahiko normala da bizikidetzaren horretan zailtasunak eta erronka berriak sortzea (eskola, harremanak,...), eta, batez ere, guk aldeztu aurretik imajinatu genuena eta errealitatea desberdinak direnean.

Udalak programa bat martxan jarri du berrelkartze prozesuan dauden eta/ edo egongo diren familiei laguntzeko.







### Zertarako?:


- Seme-alabak berriz elkartzeak familiari dakarkion antolaketa berrian lagutzeko
- Familia berriz elkartu ondoren bizi izandako esperientziak eta bizipenak jaso eta gure familiaren historian sartzeko
- Familiaren testuinguru berrian elkarren arteko egokitzapenean lagutzeko
- Familiei prozesu horretan orientatzeko. Informazio gehiago nahi baduzu,

Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan hitzordua eska dezakezu.

### ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

 **Telefonoz:**  
astelehenetik ostiralera: 8:30 - 14:30

 **Aurrez aurre:**  
Astelehen, astearte eta ostegunetan: 08:30 a 13:30  
Asteazken eta ostiraletan: 10:00 - 13:00

 Zigordia kalea 33  
 Tel.: 943 005 111 - 943 005 127

# 15



# AHOLKULARITZA JURIDIKOA (ATZERRITARTASUN ARLOAREKIN LOTUTA

## AHOLKU-SAREA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak sustatu du Aholku-Sarea, helburutzat hartuta atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa ematea kalteberatasun-egoeran dauden etorkinei eta profesionalen herri-administrazioetakoiei eta hirugarren sektorekoiei, etorkinekin inklusio-prozesuetan diharduten heinean.

Hori guztia xedetzat hartuta atzerritarrei erregularizazioa erraztea, bai eta prebentzio-lana egitea gerora irregulartasun-egoerarik gerta ez dadin, familiako bizitzaren alde eginda betiere.

Zarautzen **SOS ARRAZAKERIA** arduratzen da zerbitzu hori emateaz.

 Zuberoa kalea 22 (Zarautz)

 Tel.: 943 245 626 / 943 245 627

 [sosarrazakeria@euskalnet.net](mailto:sosarrazakeria@euskalnet.net)

## EUSKO JAURLARITZAREN INFORMAZIO ETA ARRETAKO DOAKO TELEFONOA

Egoera administratiboei eta atzerritartasuneko legediari buruzko arloetan informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematen du, eta jendea zerbitzu espezializatueta bideratzen da.

 Tel.: 900 840890

 [asesoria@euskadi.eus](mailto:asesoria@euskadi.eus)

# 16

## IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUN KULTURALA



Udalak harrera, informazio eta orientazio zerbitzua du kanpotik iritsi diren bizilagun berrientzat.

Bestalde, zerbitzu honek hainbat programa eta jarduera egiten ditu, batetik, udalerrira iritsi berri diren pertsonen integrazioa bultzatzeko eta, bestetik, bizikidetzat sustatzeko, Zarautzen dauden kulturen arteko errespetuan oinarrituta.

Hauek dira jarduera nagusiak:

- **Bertakoak:** urtean behin, jatorri desberdinetako zarautzarrak udalerriko elkarte gastronomiko bateko mahai baten inguruan biltzen gara, elkar ezagutzeko eta Zarauzko bizilagun berrien integrazioa bultzatzeko.
- **Harrera programa:** informazioa eta orientazioa. Euskara eta harrera ikastaroa, hitzaldiak, familia migratzaileei laguntzeko programa, etab.
- Integrazioarako eta sentsibilizazioarako programak.

Jarduera horiek irekita daude Zarauzko bizilagun guzientzat

Programa horietan parte hartzeko edo kontsultak edo iradokizunak egiteko jar zaitez harremanetan Immigrazio eta Kultur Aniztasunaren Zerbitzuarekin.

ZARAUZKO UDALEKO  
GIZARTE ZERBITZUAK



### Telefonoz:

astelehenetik ostiralera: 8:30 - 14:30



### Aurrez aurre:

Astelehen, astearte eta ostegunetan: 08:30 a 13:30  
Asteazken eta ostiraletan: 10:00 - 13:00



Zigordia kalea 33



Tel.: 943 005 111 - 943 005 127

# 17

## JAIK ETA EGUN BEREZIAK

Herri bizia da Zarautz, ekitaldiz betetakoa. Hauek egun berezienak:

**SAN PELAIO** da Zarauzko zaindaria, eta bere jai nagusiak ekainaren 25, 26 eta 27an ospatzen ditugu: haurren eta helduen danborradak, erraldoiak, buruhandiak eta blusa koloretsuz jantzitako kuadrillak izaten dira egun guztian zehar.

**ASTE NAGUSIA** abuztuaren erdian izaten da, eta traineru-estropadekin, su artifizialekin eta kontzertuekin ospatzen da.

Irailaren hasieran, berriz, **EUSKAL JAIEN** txanda izaten da: hilaren 9ra arte Euskal Astea izaten da, eta eguna bera, 9a, Euskal Jai Eguna handia. Aste osoa eta Euskal Jai Eguna tokiko folkloreak adierazpen bikainak dira, eta zarautzar guztiek jantzi ohi dute jantzi tradizionala.

# 18

## GIDATZEKO BAIMENA



Euskal Autonomia Erkidegoan gidabaimen ofizialik gabe gidatzea delitua da.

Egoitza-baimenen bat lortutakoan, beste sei hilabetez erabil daiteke jatorrizko herrialdeko gidabaimena.

Epe hori amaitzean, Espainiako gidabaimena lortu behar da, aurrez baldintzak egiaztatuz eta dagozkion probak gaindituz: azterketa teorikoa eta praktikoa.

Europar Batasuneko edo Europar Espazio Ekonomikoko (Norvegia, Islandia eta Lienchenstein) kide diren herrialdeetako gidabaimenen titularrek ez dute zertan egin azterketarik.

Europar Erkidegoko kide ez diren herrialdeetako gida-baimenak ere trukatu daitezke. Horretarako titularrak bizileku-baimena, bizileku eta lan-baimena edo ikasketak egiteko egonaldi-baimena eduki beharko du, indarrean jakina.

Ondoren aipatzen diren herrialdeak

- Andorra
- Algeria
- Argentina
- Bolivia
- Brasil
- Costa Rica
- Dominikar Errepublikar
- Ekuador
- El Salvador
- Erresuma Batua
- Filipinak
- Georgia
- Guatemala
- Hego Korea
- Honduras
- Ipar Mazedonia
- Japonia
- Kolonbia
- Maroko
- Moldavia
- Monako
- Nikaragua
- Panama
- Paraguai
- Peru
- Serbia
- Suitza
- Tunisia
- Turkia
- Txile
- Ukraina
- Uruguai
- Zelandia Berria

dira gida-baimenen truke horretan sartzen direnak:

## GIPUZKOAKO TRAFIKO ZUZENDARITZA

Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00



Julio Caro Baroja plaza  
2, 20018 Donostia





Tel.: 943 452 000




19

**BORONDATEZKO  
ITZULERA  
HUMANITARIOA**





Europar Batasunekoak ez den herrialde batekoa bazara, zure herrialdera itzuli nahi baduzu eta horretarako behar adina baliabide ekonomikorik ez baduzu. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak **“Borondatezko Itzulera Humanitarioa”** izeneko programa du zure herrialdera bueltatzen laguntzeko.



## ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK



### Telefonoz:

astelehenetik ostiralera: 8:30 - 14:30



### Aurrez aurre:

Astelehen, astearte eta ostegunetan:

08:30 a 13:30

Asteazken eta ostiraletan: 10:00 - 13:00



Zigordia kalea 33



Tel.: 943 005 111 - 943 005 127

# 20




# ATZERRITARTASUNEKO TRAMITEN DIREKTORIOA



## POLIZIA NAZIONALA (ATZERRITARTASUNAREN ETA MUGEN BRIGADA – DONOSTIA):

### Agiri hauek tramitatzeko:

- Atzerritarren Nortasun txartela (TIE)
- Bidaia-tituluak
- Asilo-eskaerak
- Itzultzeko baimenak
- Gonbidapen gutunak
- EBko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria
- Ziurtagiriak eta AIZren esleipena
- Aberrigabe-eskaera
- Ukraina. Desplazatuentzako aldi baterako babes-eskaera
- Aztarnak hartzea (txartela ematea) hasieran, berritzea, bikoiztea eta 14/2013 Legea

-  Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00
-  \* Urumea Pasealekua 17-18 (20014 Donostia).
-  Tel.: 943 44 98 00


### Hitzorduak on-line hartzen dira:

<https://icp.administracionelectronica.gob.es/icpplus/selectSede>

**LANEKO SAIL PROBINTZIALA  
(GOBERNUAREN AZPIORDEZKARITZA).  
ATZERRITARREN UNITATEA  
DONOSTIAN**

**Europar Batasunetik kanpokoak direnek  
honako dokumentu hauek tramitatzeko:**

- Bizileku-baimenak
- Bizileku-baimena eta lan-baimena
- Familiak berrelkartzea
- Jatorrizko herrira itzultzeko baimena
- Bidaiatzeko baimena edo egonaldi-zedula
- Egonaldiaren luzapena

 Javier de Barkaiztegi kalea z/g  
(20010 Donostia)

 Tel.: 943 989 300 / 943 989 115

 [personal\\_oiac.gipuzkoa@seap.minhap](mailto:personal_oiac.gipuzkoa@seap.minhap)

 Astelehenetik ostiralera: 9:00 -

14:00

**Hitzordua on-line hartzen dira:**

[https://sede.administracionespublicas.gob.es/  
/ pagina/index/directorio/icplusplus](https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/icplusplus)


**EUSKO JAURLARITZA**

- Etxebizitzaren egokitasun-txostena:
- Gizarteratze-txostena:

**Eskaera egiteko:**

**ZARAUZKO UDALA -  
HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA**

 Kale Nagusia 29

 Tel.: 010 (Zarauztik) eta 943 005 100

**ESPANIAR HERRITARTASUNA**

On-line edo aurrez aurre eskatu daiteke,  
baina eskaera on-line egitea gomendatzen  
dugu prozesua arinagoa delako:

Online egiteko:

[https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/  
solicitudes-escritos](https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/solicitudes-escritos)

**NAZIOARTEKO BABES  
ESKAERAK**

 \* Urumea Pasealekua 17-18  
(20014 Donostia).


 Tel.: 943 44 98 00

**Hitzordua on-line hartzen dira:**

[https://icp.administracionelectronica.gob.es/  
icplusplus/index.html](https://icp.administracionelectronica.gob.es/icplusplus/index.html)


**AHOLKULARITZA EMATEN DUTEN  
ERAKUNDEAK**

**CEAR-Euskadi**

 Amezketarrak kalea 3, behea  
(20100 Donostia)

 Tel.: 943 242 483


**Gurutze Gorria**

 Zorroaga pasealekua 23-27  
(20011 Donostia)

 Tel.: 943 222 222

# 21

# UDAL EKIPAMENDUAK



liburutegiaren ordutegia.

## MUSIKA

Musika ikasteko udal zentroa. Musika tailerra, musika mintzaira eta instrumentuak jotzen ikasteko eskolak ematen dira.

- **Imanol Urbietta**  
**Musika Eskola**

 Lapurdi kalea 9

 Tel.: 943 506 589

## KULTUR ETXEA

- **Sanz Enea Kultur Etxea**

-Liburu eta DVDen doako mailegua. Irakurtzeko materiala: egunkariak, aldizkariak, irakurketa-gidak, etab.

-Interneten doako sarbidea.

-Erakusketak urte osoan: 18:00-20:00

- **Liburutegia**

-Ikasgela: helduen

-Irakurketa erraza saioak,  
euskaraz irakurtzeko  
zailtasunak dituen ororentzat.

Nafarroa kalea 22

Tel.: 943 005 120

## INTERNET ERABILTZEN ETA SAREAN NABIGATZEN IKASTEKO ZENTRO PUBLIKOA DA

### • KZgunea



Astlehene  
tik  
ostiralera  
09:00-13:00

GAZTELEKUA,

Zigordia kalea 34 Tel.:

943 005 122

## SEXU AHOLKULARITZA GUNEA

Sexualitatearekin,  
erotikarekin, harremanekin  
edo harreman afektibo-  
emozionalarekin lotutako  
informazioa eta aholkularitza  
aurkituko duzu.



Zerbitzua 14 urtetik gorakoentzat da.

Aldez aurretik zita eskatu behar da.


Aurrez aurre, telefonoz edo on-line egin daiteke kontsulta. Doakoa eta konfidentziala da:

 Astearteetan: 17:00 -

21:00  Zuberoa kalea 22

(atzea)  Tel.: 943 005

128


 WhatsApp: 618 62 62 08



[sexuaholkularitza@gmail.com](mailto:sexuaholkularitza@gmail.com)

## KIROLA

### • Udal Kiroldegia

 Astelehenetik ostiralera 6:15 - 21:30


Larunbatetan:

8:00 -13:30 / 16:00 -20:30

Igande, jai bezpera eta udako

larunbatetan: 8:00 - 13:30

Jaiegunetan itxita.


 Araba kalea 20

 Tel.: 943 005 123

## NERABEAK

### • Gaztelekua

12 urtetik gorako nerabeentzat sustapen eta aisialdi hezitailerako zerbitzua. Jolasak, ikastaroak, eskulanak, lehiaketak, frontoia, egongelak, mahai jolasak, jaialdiak, irteerak, etab.

 Asteartetik ostegunera: 16:30 – 20:00

Ostiraletan: 16:30 -20:30

Larunbat eta igandeetan: 17:00 –

 20:30



Zigordia kalea 34


Tel: 943 005 122 / 620 546 684

 [gaztelekua@zarautz.eus](mailto:gaztelekua@zarautz.eus)

## GAZTEAK

### • Gazte informazio bulegoa.

Gai interesgarrirei buruzko informazioa ematen zaie Zarauzko gazteei: ikasketak, enplegua, karnetak, aisia, elkartegintza, etab.

 Astearte eta ostegunetan: 11:00 – 14:00  
Astelehenetik ostiralera: 16:30 – 19:30

Zigordia kalea 34

Tel: 943 005 122



 [gazteinformazioa@zarautz.org](mailto:gazteinformazioa@zarautz.org)

## HAURRAK

### • Ludotxo ludoteka


4tik 11 urtera bitarteko umeentzako espazioa

Zigordia kalea 34

Tel: 660 685 001



[zarauzkoludoteka@gmail.com](mailto:zarauzkoludoteka@gmail.com)

 Astelehenetik ostiralera, 4 – 8 urte  
(HH4-LH3): 16:45 – 19:30  
Larunbat eta igandeetan, 9 – 11 urte (LH4-LH6): 17:00 – 20:00